

BLA, BLA, BLA...

«*A big nonsense pseudo-philosophy for naïve engineers*» («Ingeniari inozoentzako zentzugabekeria handiko sasifilosofia» edo) esan zidan ondokoak Europa osotik bildutako zientzia eta teknologiako 8.000 ikerlarien aurrean politikari eta soziologo batzuen hitzaldiak entzun eta gero. «Ezagutzaren gizartean funtsezkoa da gizakiaren papera» bezalako perlak bota zituzten batere lotsarik gabe eta, agian okerrago dena, ondoren entzule askoren txaloak jaso zituzten. Ingeniari inozotzat hartzen gaituzte, ingeniari inozoaren parekoa da gure jokabidea eta, benetan okerrago dena, ingeniari inozoentzako sasifilosofia esan geniezaiokeen hori negozio biribila bihurtu da hainbat sasifilosofoentzat.

Lekutan geratu dira Protagoras, Gorgias, Prodiko, Trasimako eta enparauak gure sofista berrion aurrean. Sofista zaharrek bezala, ez diote begirune handirik egiari edo, oro har, bertuteari. Protagoras eta Gorgiasek arte askori buruz eta, zehazki, hizkuntzaren erabilerari buruz zuten jakituria Sokratesek berak gorai patzen zuen. Sofista berrientzako txaloak, ordea, ingeniari inozoenak edo sofista lagunarenak dira beti ere. Sofista berriek, sofista zaharrek bezala, kobratu egiten dute hitzaldia, baita ondo kobratu ere; jakina, filosofo profesional bati ordaindu ohi zaionari begiratuta, ingeniari edo politikari baten aurrekontuaren ikuspegitik mixeria bat baldin bada ere. Eta azken honek ematen digu sofista berrien arrakastaren giltza. Zientzia eta teknologiako aurrekontuzarretan oso errentagarria da sasifilosofoaren lana: merkea da, primeran betetzen du politikari eta ingeniariak behar duten gizarte legitimazio lana eta halako ukitu sakon eta gizatiar edergarria ematen dio ingeniari eta zientzialarien jardun enpiriko ilunari. «Zein ondo ulertzen zaion, gainera! Arrazoi du, bai. Zer izango litzateke, bestela, ezagutzaren gizartea gizakirik gabe!»

Sofisten aurrean nahiago dugu askok Sokrates. Eta ez dirurik kobratzen ez zuelako, filosofiagatik (ezagutzagatik, egiagatik, bertuteagatik) bizitza eman zuelako baizik. Aukeratzen hasita, nahiago ditugu moral nagusiaren kontra egin zuten ziniko klasikoak ere, moralik batere ez omen duten sofista berri inmoralak baino. Diogenesek eta Kratesek zakurraren bizimodua eraman zuten. Sofista berriek, aldiz, soinu bakarrari egiten diote dantza: *Money, money, money...*